

# Noqua!!

H A M A B O S K A R I A

2001eko irailaren 14a VI.urtea


Usurbil, 119. zenbakia



Ibai Ondo elkarteak  
antolatuko jaia



SETABU TAILERRAK, S.M.  
ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA



SOLDADURA

BURDINEZKO ATEAK

BURDIN SAREAK

PLANOTIK EGINDAKO PIEZAK

Eskatu aurrekontua  
konpromezurik gabe

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

TELF: 943 36 08 48  
FAXA: 943 37 24 67



- Bulegoetako materiala
- Liburudendetako artikuloak



Ugaldea industrialdea. 19. pabiloia  
20170 USURBIL

Telf.: 943 36 58 92 - Fax: 943 37 16 86



**TXIMINIA  
ALTZARIAK**



## ALTZARIAK AUKERAN

**1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak**

**Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta  
lastaira-azpikoen aukera haundia**

**Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak**

**Ehundaka altzairu %50ean**

**Mailatu txikiekin eta gabekoak**

**Osinalde poligonoa**

**Tel.: 943 37 09 66**

## Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Ekiñe!** Irailaren 19an 15 urte beteko dituzu, ezta? Ondo pasa! Zure "keriditoaren" partez.



Zorionak **Leire!** Abuztuaren 18an bost urte bete zituen gure etxeko neska politak. Esku bat osatu duzu ja. Bost muxu masail bakoitzean etxekoan partez.



Zorionak **Eli!** Abuztuaren 19an bete zenituen 16 urte. Ondo pasa zenuela badakigu: afaria, parranda... Muxu haundi bana etxekoan partez.



Zorionak **Maika!** Irailaren 9a egun esanguratsua izan da zuretzat eta Xabirentzat. Muxu haundi bat etxekoan partez.



Zorionak bioi! **Arrixuk** 18 urte bete zituen uztailaren 25ean, **Igo-rrek**, berriz, 24 uztailaren 27an. Egun zoragarria pasako zenute-lakoan...



Zorionak **Enetz, Xuban, Miren** eta **Iñaki!** Abuztuaren 17tik 28ra izaten da zer ospatua gurean. Beranduegi izango ez delakoan zorionak eta muxu haundi bana etxeko guztien partez.



Abuztuaren 30ean zure urtebetze egun izan zenez... zorionak **Jabi!** Ea noiz hartzen duzun etxekoak gonbidatzeko denbora!



**Fran Borda** eta **Ana Beristaini** zorionik beroenak. Uztailaren 31n ezkondu zinetenez urte askotan elkarrekin zoriontsuak izan zaitezela. Zuen sendi osoaren partez.



Zorionak uztailaren 17an jaio zen **Julen Portularume Bordari** eta baita aita **Joseba** eta ama **Elizabet**-i ere. Zuen gurasoak, aiton-amonak, 4 biraiton-amonak eta sendi guztiak.



Hona hemen edonor zoriontzeko tar-tea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota titulu-ren bat lortu duelako dohainik, baz-kide direnek nahiz ez direnek tar-te hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: irailak 28

Ekartzeko azken eguna: irailak 21

**B**ai, esan?

|                            |          |
|----------------------------|----------|
| • Udala                    | 37 19 51 |
| • Udaltzaingoa             | 36 11 12 |
| • Obrak eta Zerbitzuak     | 37 01 48 |
| • Anbulategia              | 36 20 13 |
| • Udarregi ikastola        | 36 12 16 |
| • Udarregi (Kalezar)       | 36 45 00 |
| • Agerialde ikastetxea     | 36 38 95 |
| • Oiardo kiroldegia        | 37 24 98 |
| • Zumarte                  | 37 15 94 |
| • Etumeta                  | 37 20 01 |
| • Taxi geltokia            | 36 21 78 |
| • D.Y.A.                   | 46 46 22 |
| • Ertzaintza               | 112      |
| • Suhiltzaileak            | 112      |
| • Larrialdiak              | 112      |
| • Anbulantziak             | 112      |
| • Posta Kutxa              |          |
| • Gure Pakea               | 37 32 28 |
| • Gure Elkartea            | 37 17 51 |
| • Arrate egoitza           | 36 63 40 |
| • Eusko Tren               | 47 09 76 |
| • Noaua! aldizkaria        | 36 03 21 |
| • Bake epaitegia           | 37 23 36 |
| • Oa farmazia              | 36 12 17 |
| • Iturralde farmazia       | 36 33 95 |
| • Zubietako Herri Batzarra | 37 20 77 |
| • Argindarra (Iberduero)   | 47 09 76 |

### Iraila

| Astel.          | Asteaz. | Asteaz. | Osteg. | Ostia. | Larun. | Igan. |
|-----------------|---------|---------|--------|--------|--------|-------|
|                 |         |         |        |        | 1      | 2     |
| 3               | 4       | 5       | 6      | 7      | 8      | 9     |
| 10              | 11      | 12      | 13     | 14     | 15     | 16    |
| 17              | 18      | 19      | 20     | 21     | 22     | 23    |
| 24              | 25      | 26      | 27     | 28     | 29     | 30    |
| ● Hurrengo alea |         |         |        |        |        |       |

### Udaltzaingoa-ren ordutegia

#### Astegunetan

6.00/22.00

#### Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu deitu telefono honetara

943-361112

Noaua aldizkaria!  
Bordaberri 3  
Usurbil

Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuartean badabilkizu edo eta herriko zerbaitetaz hitz egin nahi baduzu guk ikamikan toki bat egingo dizuegu.

Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua!n argitara emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

**Argitaratzailea**

Noaqua! Kultur Elkartea  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02  
E-mail: noaqua.k.e@euskalnet.net  
Web orria:  
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaqua>

**Kazetarien koordinatzailea**

Josu Aranberri

**Kazetariak**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

**Publizitatea**

Agurtzane Solaberrieta

**Zuzentzailea**

Eneko Harreguy

**Kolaboratzaileak**

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karnele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Elzendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbiet, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

**Administrazioa**

Arantxa Usarralde, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

**Erredakzio Kontseilua:**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

**Maketazioa eta diseinua**

Olatz Goenaga, Zaloa Arnaiz eta Ibon Beristain.

**Dokumentazioa**

Idola Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

**Informatika**

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

**Banaketa**

Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaqua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaqua! Kultur Elkarteko  
jendaurreko  
ordutegia:**

**10.00-14.00 / 16.00-20.00  
astegunetan**

## Iñaki Aranburu Izagirrerri argibide batzuk

**E**zjakintasuna lotsagabea da eta orain ere agerian geratu da. Arrazoi duk bide guztia zabaldua konpon-tzen dela Zubietako bideen arazoa esatean, baina boron-datea besteei eskatzea duk errazena. Beste bidea Zubiet Herri Batzarreko kide batzuk ez dutela konpondu nahi esatea gezur galanta duk (Batzarreko "zenbait kide" ez duk inor. Izen abizenak ditiagu).

Etsetxoko errebueltako obren adjudikatzea Donostiako eta Usurbilgo udalek konkurtso subasta baten bidez eginak dituk. Proiektu horrek badik obrako zuzendaritza bat eta bere ardura dek lan jarraipena egitea. Obrako langileek ere baditek nagusi bat eta hark jakingo dik nola egin behar den obra. Hain kezkatuta azaltzen haizenez eta lasaitu adin esango diat: behin baino gehiagotan etorriak gaituk Etsetxoko atari aurrera konpon-bidea eskaintzera Usurbilgo alkatea, Donostiako teknikoak, errebueltak hobetzeko proiektua egin zuen injineru teknikoak, Zubietako Herri-Batzarreko alkatea eta batzorde kideak.

Bide nagusira gehien gertur-tzen denaren parean bi metro eta erdi utziko zitzaioela eta bere aurrean lurrari eusteko harrizko pareta e egingo zitzaioela proposatu genion. Baita aurrean bordilo antzeko batekin bidea eta baserria babes-tuko zitzaioela, nahi bazuen pibote eta kateekin babestuta

utziko zitzaioela... alferrik. Ez duk egin Zubiet bidean konpon-ketarik, Etsetxori adina eskaintza egin zaionik eta hainbeste eskaintza egin ondoren ez duk "por cojones" izaten. Saiatu, saiatu gintuan konpontzen, baina ez zuan posible izan. Guk egindako eskaintzak ez hituan onartuak izan eta erre-buelta hori zabaltzeko zenbat "potro" genuen ikusiko zutela esanaz agurtu gintuzten.

Artzabaletako errebueltari buruz, dagoeneko, aurreran-tzean bidea zabaltzeko proiektu berria egin zegoen eta Herri-Batzarrean aurkeztu da bere barne bileretan. Halaber, erre-buelta horretako lur jabeak (batzarkidea bera) espropiazio bidea hartzen ez den bitartean errebueltak hori egiteko lurrak ez dituela utziko esana dik. Lurrik ez duen jabea balitz! baina...

Bestalde, Etsetxoko errebueltak gaizki egin dagoenik ez duk esaten, eta obra horren onuradun nagusia herorri haiz dudarik gabe.

Azkenik, hire argibiderako, Etsetxoko eta Lizarrako erre-bueltak zabaltzeko espropiazio bidean aurrera egitea batzordekide guztiek (6 kide) ahobatez onartu zuten eta hori horrela dela frogatzeko onartua izan zeneko akta Zubietako udalean zegoen.

Joxe Luis Aroztegi



Usurbilgo Udalak



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak diruz  
lagundutako  
aldizkaria



Euskal Herra!

Euskal presoak



## Zubietako kurben hobekuntza obrak direla eta

**G**ai hori hartu zuen hizpide Iñaki Aranburuk Noaua!-ra bidalitako eskutitzean. Iñakik idatzitako kontuei erantzun nahi diegu honakoan, argibideak emateko eta gure arrazoia azaltzeko.

Hasteko, esan dezagun kurbak hobetzeko egitasmoa aspaldikoa dela. Hamar urte baino gehiago dira Zubietako Juntakoek ekimen horri heldu ziotela. Kostata, baina 1994an onartu zen kurba arriskutsuak hobetzeko proiektua. Artean osatu gabea zen gaur egungo Herri-Batzarra. Proiektuaren motibazioa ez zen Zubietarako bide azkarra egitea, baizik eta arriskua kentzea. Asmo apal horrekin bat egin du (aho batez) gaur egungo Herri-Batzarrak, eta halaxe azaldu du herriaren aurrean egindako batzar eta asanbladetan. Jokabide horrek, gainera, babes zabala jaso du herriaren aldetik. Akaso, Iñakik zioen bezala, proiektu honekin ez dira konponduko Zubietako bidearen arazoak, baina ezin da ukatu hobera egiten ari garenik. Amiri, Artzabaleta, Etxetxo eta Lizarraga aipatzen zituen Iñakik bere eskutitzean, baina ez zuen txintik esaten Aizpuruko kurban eta zerrategikoan egindako obrei buruz. Inork ukatu al dezake egindako obrekin arriskua kendu denik?

Zubietako bide-sarearena gai garrantzitsutzat du Herri-Batzarrak. Gure iritziz, planteamendu taxukoa eta integrala egin behar da, batez ere autoen eta oinezkoen segurtasuna zainduko duena. Eta soluzioak bilatzean ez du balio batek nahi ez duena besteei pasa nahi izatea. Gu ez gara joko horretan eroriko. Orain dugun bidea hobetzen bai, horretan saiatuko gara (Lasarteko zubitik Araetako bidegurutzeraino espaloia egiteko proiektua hortxe dago, adibidez),

eta etorkizuneko proiektu bideragarriak diseinatzen ere ahaleginduko gara; baina, kontuz, ez ditzagun gauzak neurritz kanpo puztu, lehendik ere Zubietan proiektu erraldoi gehiegi egin nahi dira eta.

Bere argudioak indartzeko, Iñakik zioen Iruindik Artzabaletarako bidea ez duela egokitu nahi Herri-Batzarreko zenbaitek. Hori ez da egia. Iruindik Artzabaletarako herri-bidea (herri-bide guztiak bezalaxe) egokitzea komenigarria iruditzen zaigu Batzarreko kide guztioi, betiere bide horren izaera eta erabilera ondo zehaztuta. Gaur egun Buruntza mankomunitatea azterlan bat egiten ari da bide hori erabiltzeko. Ikusiko dugu zertan geratzen den.

Bestalde, egin diren espropiazio edo desjabetzeak direla eta, Iñakiren ustea da inposaketa hutsa dela gure jokabidea. Ez dugu ukatuko espropiazio guztiek berezko dutela inposizioa, baina ez da izango hitz egiten eta arrazoibideak ematen saiatu ez garelako. Bai Herri-Batzarreko kideok, bai Usurbil



nahiz Donostiako udal-ordezkariek luze hitz egin dugu lur-jabeekin. Obra horien barnean lur-jabeen mesedera-ko egin zitezkeen hobekuntzak ere aipatu izan ditugu behin baino gehiagotan, borondatea erakutsi da, baina ez da egon modurik ados jartzeko. Hain jarrera itxia erakutsi eta gero, zertara dator orain obren ondoriozko mesedeak eskatzea?

Esandakoez gain, Iñakik Artzabale-  
tako kurban San Juan bezperako ordu txikietan izandako istripuaren aipamena egiten zuen, adierazi nahian egindako lanekin ez direla errebutak konpondu. Iñakik ez zuen aipatzen, ordea, zenbat istripu gertatzen ziren errebutela horretan obrak egin aurretik. Egia da, kurba hori bukatu gabe dagoela. Hori ez dugu ukatuko. Baina egia da orain lehen baino hobeto dagoela. Orain, normal joanez gero, ikuspen askoz hobea dago. Eta Herri-Batzarrak dagoeneko proiektu bat egina du obra hori jarraipena eman eta kurbaren iteeran erreka desplazatuz bidea zabaltzeko. Gertatzen da obra horretarako ere jarrera itxia topatu dugula (gainera, honako honetan, batzarkide bat da horko lur-jabe nagusia). Beraz, berriz ere, espropiaziora joan beharko dugu, ezinbestean.

Penagarria iruditzen zaigu horrela ibili beharra. Gure ustez, zenbait herri-tar giro nahasia probokatu nahian dabil. Herri-Batzarreko kide garenok bene-benetan diogu gure asmoa ez dela inori kalte eragitea. Baina gure egitekoa kurben hobekuntzarako proiektua aurrera eramatea da. Horretan saiatu gara, eta etorkizunean ere horretan saiatuko gara.

Xabier Arregi, Isidro Zaldua, Joxeli Aroztegi eta Garbiñe Zaldua (Zubietako Herri-Batzarreko kideak)

## Gora Usurbil eta bertako jende ona

**P**asa den uztailaren 23an bizi garen etxeak sua hartu zuen. Pentsa dezakezuenez sustoa haundia izan zen eta arazoak ere ugari izan ziren. Zorionez honek guztiak konponbidea izan du eta hilabete batez etxetik kanpo egon ondoren berriz etxean gaude, eta gauzak bere onera etortzen ari dira pixkanaka-pixkanaka. Eskerrak egoera ezberdinek, baita txarrenek ere, zerbait erakusten dutela eta gauza positiboak atera behar dira hauetatik guztietatik.

Gure kasuan, eta hau da lerro

hauek idaztearen arrazoia, jendearen erantzuna eskertu behar dugu, hainbat auzo, lagun eta ezagunek bere laguntza eskaini baitigute. Askok izan dira elkartasunezko hitz goxoekin guregana etorri direnak; honelako momentuetan bihotzez eskertzen da. Bereziki Arkarazo-Silva familia eskertu nahi dugu, bere etxeari esker gure seme-alabek opor garaiak izan dituztelako arazo baten orde. Mila esker bihotz-bihotzez zuei eta beste guztiei.

Baina susmo txarrekin ibili direnak ez ditut ahaztu nahi. Informa-

zioa jaso eta era itsusienean zabaltzen dutenak dira horiek, min emateko asmoarekin gezurak kontatzeak axoliki ez dienak. Leku guztietan bezala hemen ere badira horrelakoak, eta hauei nire mesprezurik haundiena bidali nahi diet.

Aurrenekoei, gehienei, eskerrik asko, izan ere inori ez genioke opa nahi guk pasa dugun bezalako egoera txar hau.

Gora Usurbil eta bertako jende ona.

Ana I. Flores Rolín

# SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta



## Tandy janari-denda itxi egingo dute

**A**zken bolada honetan ez dabilta berri onak gure auzoan. Izan ere, Tandy janari-denda itxi egingo baitute hemendik gutxira. Bertako harategia abuztuaren hasieran itxi zuten eta frutak eta barazkiak ere jada ez dituzte saltzen. Goizez bakarrik irekiko dute aurrerantzean bertan geratzen diren produktuak saldu bitartean bederen.

Lau hilabete buruan bigarren denda itxi dute gure auzoan. Izan ere, duela hilabete batzuk Mari denda itxi baitzuten. Esnaolatarren denda gaur gaurkoz zabalik geratzen zaigun denda bakarra da eta luzarorako hala izan dadila, behintzat.

Bi denda hauetaz gain ere, urte bukaerarako bodega eta San Esteban taberna itxi egingo ote dituzten zurrumurrua ere zabaldu da.

Bistan denez, gauzak ez dabilta ondo herriko komertzio



eta denda txikietan. Auzoko bizitza galduz doa pixkanaka-pixkanaka eta auzotarren topagune diren tabernak eta dendak ere desagertzeaz daude. Espero dugu Esnaolatarren denda zabalik mantentzea luzaroan, bestela, herriraino igo beharko ote dugu ogia erostera? Gu, behintzat, sasoi gaude, baino hirugarren adinako pertsonak ez daude egunero Usurbila igotzeko moduan. Beraz, neurri batzuk hartu beharko ditu Udalak.

Ez da lehen aldia hau aipatzen dudala, baina egoera zein den ikusirik, ez zait iruditzen brometan hartzeko gaia denik.

# URDAIAGA

Alazne Begiristain



## Festak errepasatuz

**U**da pasatu da eta badirudi mundua berriro ere martxan jarri dela; jendea lanera, haurrak ikastolara... badakit sanestebanak ere urrutitoki gelditzen direla askorentzat,



baina hauen inguruan gogoe-tatxo bat egitea gustatuko litzaidake.

Urteroko legea hautsiz, aurtengo eguraldia ederki portatu dela esango nuke orohar, nahiz eta haurren egunean zaparradatxo bat bota eta oilasko bilztzaile gindozenok ere bustialdi ederra hartu. Momentu askotan, giro ederra sortu da plazan. Oraindik buruan dut San Esteban eguna; jendea plazan eserita, Erramun Martikorena kantari, eguraldi zoragarria, piperrak,

edana ere nahi izanez gero,... zer gehiago eska liteke?

Hala eta guztiz ere, sentsazio triste batekin amaitu ditut festak. Tristura honen arrazoiak jendea izan da, hobe esanda, jende falta.

Aurreko urteetan, adibidez, larunbat gauetan dantzan ari zuten zen jendea beteta izaten zen plaza, aurtengo zer? Badakit gaur egun festa "handietara" joateko ohitura dugula, baina denborarekin nire auzoko jaiak amaitu daitezkeela ikusteak halako ezinegona sortzen dit barrenean. Amaitzeko, galdera bat bota nahi nuke; zer egin behar dugu zuek festetan gure auzo honetan izateko?

# KALEZAR

Ainara Uribe



## Kaixo auzotarrak:

**E**ta herritarrak, noski. Berriz ere hemen gaituzue lerro batzuen bidez zuekin harremanetan jartzeko prest. Oporrak bukatu dira eta denok martxan indarberriturik, edo hala beharko luke, behintzat.

Ea kalezartarren bat laguntzatxo bat emateko prest



dagoen eta zerbait kontatzera animatzen den, norbaitek izango du kontu zebreren bat esateko, kontu barregarriren bat edo... animatu zaitezte!

Izan ere, batzuetan ez da gauza gehiegi egoten kontatzeko, beno, betiko kontuak, etxeak egiten ari direla, ikastola zaharrear haurtzaindegia eta zahar egoitza berria jarri dituztela...

Eta oporretako ajea oraindik gaintzeko dagoenean, pasatako momentu onak gogoratze joera ere izaten da. Halako zigorrik!

Honegatik, hain maiteak ditugun sanjuanez

gain, pasa den abuztuaren 15ean San Roke eguna ere ospatu genuela ekarri behar gogora. Berez San Rokeren omeneko eguna abuztuaren 16ean izaten da, baina 15ean jai eguna zela aprobetxatuz, festa apala izan genuen auzoan. Badakizue, ohitura asko berritzen ez badira galtzeko arriskua ere badago.

Besterik gabe amaituko dut nire oporretako eskutitz hau. Ea hurrengoan lerroak txukunago baliatzeko moduan naizen. Eta animatu eta aldatu haserre aurpegi hori, normaltasunerako buelta ez da samurra baina, gainera, animo horrekin hartuz gero... sufrimendu bikoitza.

# ATXEGALDE

Zaloa Arnaiz



## Udare publikoak

**A**txegaldeko lorategietan zuhaitz mota ezberdinak ditugu landatuak, baina orain arte ez nuen pentsatuko horietako batek zeresana emango zuenik. Normalean fruituak ematen dituzten zuhaitzak (sagarrondoak, gereziendoak...) horretarako prestatzen dituzten belardietan ikusten ohituak gaude. Oraingo honetan, ordea, gure auzoko lorategi batean fruituak ematen dituen zuhaitzaren aipamena egin behar dut.

Erdiko kalean dagoen udareondo batez mintzo naiz. Zuhaitz gaztea izan arren, fruitu ederak ematen hasi den udareondoa da. Ederrak diot udareak mami sendoa eta urtsua izaten



duelako, oso egokiak udarako egun beroetan gustura dastatzeko.

Udareondoena berez Europako sartaldean, erdialdean eta hegoaldean hazten da, baina, ikusten dugunez, beste eskualde askotara ere zabalduta dago, gurera, adibidez.

Bestalde, udarea bera sukaldaritzan oso erabilia da jaki ezberdinak prestatzeko: bazkariak, postreak, zukuak, edariak... baina, txo! ez orain hona etorri denak zuhaitza biluzik uztera! Ikusi ikus daiteke baina, tira, norbaitek udare hauek hartzeko asmoa badauka, gutxienez azokara joan edo ez jakiteko.

# TXOKOALDE

Eukene Camino



## Intxaurrondoa, zu ta ni

**U**darregi ikastetxea, ni, bertako hamahiru urteko ikaslea. Ixidro Iribar euskarako gure irakaslea. Honako hau, berriz, honek aginduta guk bete beharreko lana: bakoitzak nahi duen neurria eta gaia erabiliz, lau bertso osatzea. Hau buruhaustea!

Etxe parean badugu gure aitak duela 57 urte landatutako intxaurrondo eder bat. Hau, aurtan inausi ez dugunez, ez dago behar bezain polita, baino txoriek bertara hurbildu ahal izateko aukera izan dezaten, bertan txori kabi bat jarri dugu. Nik, hain gaztetxo izanik, nire bertsoak sortzeko gaitasuna eman zidan inspirazio iturria arbola honetan aurkitu nuen. Eskolarako idatzi nituen bertso

hauek "Zeruko Argia" (gaur egun "Argia") aldizkarian argitaratu zituzten. Orduan sentituen ilusioa sinestezina da, eta Txokoaldeko kronista izateak ematen didan aukeraz baliatuz, Noauan utzi nahi dut bertso hauen egiaztapena.

Nere etxeko intxaurrondoak galdetzen dit egunero, zer moduz dago zure laguna nire ametsa gauero, bihotz maitia desterratua esan eidazu hilero, nik emango nizuke gustora nere etxe barrun bero.

Neure adarrek daukaten poza nere enborraren parra, sustraietatik dute hasera zainetan berriz indarra,

hasten badira bertan intxaurrak hil han egongo den harra, horretarako egin eizkiozu saihetsetikan bi marra.

Aizan Eukene esaidan orain non dagoen zuhaitz hori, amets bat egin dinat gauean intxaurrondoa, zu ta ni amets, intxaur ta sustrai, enbor, zain dena etxearen zori, esan iezadan egia dela ametsa ez dela erori.

Nere barrun-barrungo laguna intxaurrondoak esan dit, ez omen zaitu aspaldi ikusi amets bat duala zutik, zure ametsa egi badut nik poztutzen naiz bihotzetik, jabetzen joan gaitezen biok gauza guztien gainetik.

# KALEBERRI

Eneko Harreguy



## Nondik gehiago?

**H**eritar gehienek ezagutuko duzue plaza hau idatziz eman zion hasera Jokinek. Bai, halaxe da, guztiok ezagutuko dugu. Jokinek parkeari buruz entzundako iritziak ez omen dira oso onak izan; ezta nik eta beste hamaiketik entzundakoak ere. Jokinentzat originaletik gehiago dauka itsusitik baino, ohituegiak omen gaude iturridun zelaiekin eta. Baliteke hala izatea; baina, kontra, bat ez da ohitzen *horrelako hormigoi blokeekin* (Jokin Zubiaurrek esana).

Hala ere, aterako omen zaio zukua beste berri honi. Festetan sekulako probetxua atera

omen zitzaion txosnekin, euria egin zuenean hormigoi estalduraren azpian babestu baiken gaupaseroak. Inork pentsatu al du euria egin eta parkerik ezean nora joko gendukeen? Seguru korrika etxeratuko gine-la!

"I. Bolo Txapelketak arrakasta izan zuen". Itzela, gainera; ez diet esan guztieri aurpegiaren beste aldeak erakutsiko. Baina arrakasta horren trikimailua ez dauka parkeak. Parkean eraiki dute eta kitto, baina beste esparru batean egin balute ere arrakasta bertsua izango zuke-elakoak nago. Halaber, eraiki

eraiki dute, baina ez dakit etekinik aterako zaion. Etxeratze gutxi motibatzen duten egunak eta gauak egin ditu, guztiok karrikan bueltaka, eta, aldiz, bolatokirako bolak ez du batera bueltarik eman. Laster lotuko zaio goroldioa!

Jokinekin hartua dut, eta berarekin jarraituko dut. Parkea originalagoa ei da itsusiagoa baino. Ez dakit zein den "-ago" agoa, baina, Jokin, zurekin bat nator originala, behintzat, badela aitortzean. Beste inori bururatuko ahal zaio, bada, rugbyari aritzea hormigoi gainean...



# AGINAGA

Maria Angeles Arruti



## Ondo eta gaizki eginak

**A**urreko batean kexu nintzen txoko honetan, Intxaurreta parean errepidearen bi aldetara zulo handiak zeudela eta egoera ez zela oso txukuna esanaz. Baina beti ez gara, bada, kexatuko. Ondo eginak ere aipatu nahi nituzke hemen eta zuloak konpondu dituztela esan behar dut. Galipota bota dute bi aldetara eta oso txukun geratu da Intxaurreta inguru hau. Diferentzi ederrean. Hori ere eskertuko dugu, beti ez gara txarrean arituko.

Bestetik, Aginagakoa ez baina gertukoa dugun gai bat ere aipatu nahiko nuke, bereziki nirezat oso etxekoa dela. Azkenean ez da posible izan

aurtengo bandera etxera eramatea. Baina Orioko mutilek beren estropada egin zuten eta bihotz-bihotzez zoriondu nahi nituzke guztiak, baina, bereziki, Iñaki

Errasti "gure aginagarra". Iñakik ahalegin guztiak egin ditu baina, azkenean ez da posible izan garai batean bere aitak lortutako Kontxako bandera Orio aldera ekartzea.



Hala ere, txoko honetatik jaso ditzatela Iñakik eta Orioko traineruko beste mutil guztiek nire animorik beroenak. Eta ez dezatela inoiz ahatu; *Aupa Orio, nahiz galdu.*

# ZUBIETA

Olatz de Miguel



## Mitxelingo tubiloekin gora eta behera

**M**itxelingo tubiloekin izan diren arazoak aspalditik etorri arren, badirudi azken urtebetean hauek gehitzen ari direla. Fibrozementuzko tubiloak zahartzearen ondorioz desegin eta lehertu egin dira puntu batzuetan, inguruan zenbait kalte sortuz. Horrela, hauek aldatu beharra ikusi da.

Honen aurrean, duela gutxi herriar batzuen artean lehen bilera bat egin zen eta honen atzetik Zubietako Herri Batzarra rekin elkartu ziren, nahiz eta bi hauetara Mitxelingo ordezkari zuzenik ez den agertu.

Badirudi tubilo berriak lehenengo toki beretsutik jarriko direla,

baina berrikuntzekin hasi aurretik akordioak lortzea beharrezkotzat jo da. Tubiloak igarotzen diren lurretako jabeen izen, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia eta sinadurak bildu behar dira lanek aurrera egiteko lortu beharreko abal gisa. Eta hori ere ez da lan erraza, zenbaitzuk ez baitu baietza eman nahi tubiloa zehazki nondik pasako den seinalatuta ikusi arte.

Eta hor geratu da gauza. Arazo honi irtenbide bat eman beharko zaio lehenbailehen, bai herriar eta bai Mitxelinen mesederako ere izango baita azken finean. Bitartean, tubilo berriek Iruin Sagardotegiko

aparkalekuan itxaroten dute, noiz jarriko zain.



## Abuztuaren 31n inauguratu zen herriko haur eskola berria

**I**railaren etorrerarekin batera herriko haur eta gazteei berriz ikasketei heltzeko garaia iritsi zaie. Udarregi ikastola nahiz Zubietea, Santuenea eta Aginagako eskola txikietan ikasleak beren beharretara itzuli dira, baina aurten, bada berrikuntza bat: herriko haur eskola. Pasa den abuztuaren 31n izan zen inaugurazio ekitaldia Kalezarko Udarregi zaharrean eta irailaren bigarren asteaz geroztik zabalik ditu bere zerbitzuak.

Herriko familia askotan gurasoek lana egiten dute. Haurrak hazita dituztenek ez dute arazo haundirik izaten, baina 0-3 urteko haurrak dituztenek lanean diren bitartean haurrekin egoteko norbait topatu behar izaten dute. Herrian, ordea, haur eskola bat jartzearen beharra azaldu zen duela urtebete inguru gurasoen artean egin zen inkestan.

Hau ikusirik udalak haur eskola bat sortzea erabaki



ondoren dagoeneko martxan da herriko txikienak egoteko txokoa. Pasa den abuztuaren 31n izan zen Kalezarren kokatuta dagoen eraikuntzaren inaugurazio ekitaldia. Herriko dantzariak aureskua dantzatu zuten, Joxe Antonio Altunak ongi etorria eman zion haur eskolari eta txikien gozamenarako Takolo eta amona Joxefinarekin ondo pasatzeko aukera izan zuten haur eskola

berria ikustera gerturatu ziren guztiek.

Umeek, ordea, irailaren bigarren astean inauguratu zuten beren egoitza berria. Izen-emateko epea berandu ireki bazuten ere 0-3 urte bitarteko 14 haur zaindu beharko dituzte haur eskolako hezitzaileek. Izan ere zerbitzu hau goizeko 7.30etatik arratsaldeko 19.00ak arte zabalik egongo da astegunetan.

## Lanbide Hastapenerako ikastaroetan izen emateko aukera zabalik dago

**L**anbide Hastapenerako ikastaroren bat egin nahi dutenak oraindik garaiz dabilta, izena emateko epea irailaren amaiera arte luzatu baitute. Lan-munduan sartzeko beharrezkoak diren instrumentu, ahalmen eta ezagutzak eskaintzea da ekimen honen asmoa eta horretarako aukera zabala eskaintzen dute.

Ileapaindegintza-edergintza, sukaldaritza-gozogintza, eraikuntzako teknika berriak, zurgintza eta egurra, automobilaren karrozeria eta pintura (motoen pintura), galdaragin


tza eta automobilaren mekanika ikastaroak egiteko aukera ematen du Lanbide Hastapenak. Lanbide batean hasteko aukeraz gain beste ekintza desberdinetan parte hartzea ere eskaintzen da: D.B.H. graduatua lortzeko laguntza, Lanbide Heziketako erdi-mailako sarbide probak prestatzea, Oinarrizko Heziketa, kirola, lanbide-irteerak, txangoak... Hori bai, ikastaroa bukatutakoan aukeratutako espezialitatea lantzen duten enpresetan praktikak burutu ahal izango dira.

Ikastaro hauetan parte hartu nahi dutenek udaleko monitore soziolaboralaren bulegoan eman beharko dute izena 8.00etatik 11.00etara irailaren bukaera baino lehen.



## Galindoren indultoaren aldeko eskaera iritsi da udalera

**G**alindo jeneralaren indultoaren aldeko atxekipena eskatuz iritsi zen honako eskutitz hau udalera pasa den abuztuaren 31n. Horrez gain, Santandertik bidalitako eskutiz honetan Galindoren indultoaren aldeko firma bilketa egiteko irailaren 1etik 15era bitartean udaletxe inguruan mahaiak jartzeko baimena eskatzen da. Udalak, noski, ez dio baimenik eman eta erantzun modura eskutitz bat bidaltzeko erabakia hartu dute.



## Andatza-Irisasi

Udala Andatza-Irisasi mendiko kudeaketaren inguruan azterketa bat egiten ari da. Gai honen inguruan inork ekarpenik egin nahi izanez gero, udalera joan eta nekazal teknikariarekin harremanetan jarri daiteke.

## Lanpostuak

Udalak biztanleria eta etxebizitzaren udal errolden berrikuspena egitea erabaki du. Horretarako hiru agente kontratatzeko aukeraketa zabalik dago. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 17an amaitzen da honako baldintza hauek eskatzen dira:


- 2001eko urtarrilaren 1etik Usurbilen erroldatua egotea
- LH2 edo baliokide den tituluaren jabe izatea.
- Informatikako programak erabiltzea: word, Access, Excell.
- EGA edo baliokidea den tituluaren jabe izatea.
- Herria ezagutzea.

## Artzabalgo babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko eskaerak egin daitezke ja

**E**txebizitza hauek eskuratu ahal izateko eskaerak aurkezteko epea ireki da dagoeneko. Bete beharreko prozedura guztiak bete ondoren irailaren 10ean zabaldu zen eskaerak egiteko epea eta urriaren 9a baino lehen aurkeztu beharko dira baldintza orrietan zehaztutako orriak udaletxeko idazkaritzan. Bete beharreko dokumentazioa ere bertan eskatu beharko da.



**SERIGRAFIA**  
**TanPOGRAFIA**  
**10Su**  
Ugaldea poligonoa 36 - 2º Esk  
Usurbil - Gipuzkoa  
37 19 54



**Igandetan ganba-ziri mundialak!**

**JUANTXO**  
burdindegia  
kale nagusia 10 Usurbil  
37 00 08

INDUSTRI ETa  
IRAGARKI SERIGRAFIA  
KAMISETEN INPRIMAKETA



## Parrokiko organoarekin bi CD grabatu ditu alemaniar musika etxe batek

**S**albatore Deuna parroki-an dagoen Mutin Cavaille-Coll organoaren mendeurrena 2007. urtean izango bada ere, ospakizun horri begira ekimen bat mar-txan jarri du dagoeneko Or-ganoaren Lagunak elkarteak. AEOLUS alemaniar etxeko tek-nikariak bi CD grabatzen aritu dira azken asteetan. Lehen CD-an Jesus Guridi gasteiztar musikari ospetsuaren 21 kon-posaketa jasoko dira, beste-an, berriz, Wagner alemaniar musikariaren konposaketak entzun ahal izango dira.

Bi CD hauen grabaketaren proiektua 2007. urtean Mutin Cavaille-Coll organoaren mendeurrena ospatzeko aurreikusitako ekimenetako bat da. Mundu osoko organo-ekin hainbat CD grabatu dituen AEOLUS etxeak Salba-tore Deuna parrokiako organo-arekin grabazioren bat egite-ko proposamena helerazi zien Organoaren Lagunak elkar-te-ko kideei eta egitasmo hau gauzatzea erabaki zuten. Izan ere, organo musikaren graba-ketetan izen haundia duen musika etxe honek inoiz gra-ziorik egin gabeko organoak aukeratzen ditu.



Abuztuaren bukaeran lau-pabost egunetan zenbait gra-bazio egin ondoren iraileko lehen bi asteetan bukatu zituz-ten egin beharreko grabake-tak. Tresna guztiak beraiek ekarri dituzte eta Alemaniako soinu injineru tekniko baten ardurapean grabatu dira bi CD-ak.

### Gabonetarako salgai egongo dira bi CD-ak

Lehen CD-an Jesus Guridi gasteiztar musikari ospetsuak organoaz jotzeko sortutako 21 konposaketa jasoko dira.

Hauek inoiz grabatu gabeak dira eta hauexek dira Guridi-ren obra osoa osatzeko gra-batzeko falta diren azken kon-posaketak. Bigarren CD-rako, berriz, Wagner alemaniar musikariaren konposaketak grabatu dituzte. Izan ere, Juan Luis Atxega herriko organo-jolearen esanetan Wagner-en musika jotzeko oso egokia da parrokiako organoa. CD haue-tako bakoitzak 70 minutu ingu-ruko iraupena izango du eta bost hizkuntzez (euskara, gaz-telera, ingelesa, frantsesa eta alemaniera) osaturiko liburus-ka bat ere izango du.

CD hauek aurtengo gabo-netarako kalean izango direla esan die AEOLUS etxeak. Lan hau Alemania, Frantzia, Italia, Suiza, Holanda eta Estatu Batuetara hedatzeko asmoa dute, baina herrian bertan ere prezio herrikoi batean bana-tzea litzateke Organoaren Lagunak elkarteko kideen nahia.

Hala ere, organoa eraiki zenaren lehen mendeurrena ospatuz, organoaren erabate-ko osaketa burutzea da beraien azken helburua. *"Iker-keta historiko-artistikoa egin*



*ondoren lehen bagenekien zerbait baieztatu da: jatorrizko organoaren zati bat besterik ez da herriko organoa. Horregatik teknikari ospetsuei osaketa proiektua egiteko eskatu diegu. Proiektu hau martxan da, baina gero, burutuko den hala ez ikusteko dago oraindik, dirutza haundia beharko baita horretarako. Organoa desmontatu ondoren Frantziako leku zehatz batera eraman behar da. Han dena osatzen saiatuko lirateke, baina adituek esan digutenez zaila izango da lehen bezala osatzea”.*

### Gabonetarako salgai egongo dira bi CD-ak

Helburuak zabalak izanik organo musikaren eta Usurbilgo organoaren ezagutza erraztu eta usurbildarren eta gipuzkoarren artean zabaltzeko garrantzitsutzat ikusten dute bi CD hauen grabaketa. Organoaren Lagunak elkarteko kideen ustez usurbilgo organoaren promozio horrek azken helbururako (organoaren berrosaketa) behar diren atxekimenduak erraztuko lituzke.

**Josu Aranberri**

## Frantziako baroi berezi baten-tzat egindako organoa

Aristide Cavaillé-Collen oinordekoa izan zen Charles Mutin-ek eraikitako arganoa da Usurbilgo parrokiakoa, 1907an Pariseko bere tailerrean eraikia hain zuzen ere. Nahiz eta ezaugarri historiko-artistiko bereziak izan, estilo aldetik erromantiko-sinfoniko estiloan kokatzen dute adituek.

Biarritzetik gertu dagoen Ilbaritzeko gaztelutik ekarria da. Itsas ikusmira ederrez inguratutik dagoen gaztelu hau musikaz maiteminduriko Albert de L'Espée baroiak eraikia izan zen. Era berean bertan ipini zuen organoa ere. Datu historikoek diotenez 1912tik aurrera Burdeos, Paris eta beste leku askotatik musikari asko inguratu zen organo eder honek zituen berezitasunez eta gazteluko akustika ederraz gozatza.

1911. urtearen bukaeran baroiak Ilbaritzeko bere jabetzak saldu zituen, organoa

barne. Honela, I. mundu gerraren hasieratik 1920 urtea bitartean organoa zatitu egin zuten, urte horretan soinuzko materialaren %60a besterik ez baitzen gelditzen. 1920an Bastide doktoreak erosi zuen, eta honek, zatirik haundiena usurbilgo parrokiari bersalduko dio, Guillermo Arana erretoreari hain zuzen ere. Bastidek beretzat jasotako materialarekin beste organo txiki bat eraiki zuen. 1956. urtean organo txiki hau Urt-eko monja Benediktarren esku geldituko da eta gaur egun ere organo txiki honen zatitxo batek monastegian jarraitzen du. Beste zatiak, berriz, Pau-ko elizan daude.

Sakbatore Deunaren parrokiari organoa montatzera Ferdinand Prince etorri zen. Bederatzi hilabete egin zituen Usurbilen eta berak zaindu zuen denbora honetan herriko organoa. Hau Aristide Cavaillé-Collen kolaboratzaile zuzena zen eta Bastideri erositakoa az gain errejistro berriak jarri zizkion.

Organoaren osaketa honelakoa da gaur egun: %52 Mutin organoaren jatorrizkoa, %33 Princek ezarria, %4 Hernaniko Amezua y Cia organo etxeak 1966an ezarria eta %11 Bernal eta Korta organogileek jarria.



**Zendoia enea**  
**Taberna**

- ✓ Pintxoak
- ✓ Eguneko menuak
- ✓ Bokatak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Razioak, .



Kale Nagusia, 35 Telf; 943 36 25 60



**MAHUKA**

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

*Udazkeneko moda berria zuretzat!*

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

# Euskara ikastera berriro ere!

**B**ukatu zaizkio oporrak Etumeta euskaltegiari ere eta urtero legez, berriro ere ekin diogu matrikulazio kanpainari. Hala ere, aurten gure ikasleek egoitza berria izango dute, udalaren egitasmo berria dela eta, urriaren hasieran beste lokal batera joatekoak gara.

Jakingo duzuenez, irazu kaleko Udarregi zaharra eraberritzeko asmoa du udalak, bertan Kultur Etxe berria kokatuko baita. Azkenean herriaren beharretara egokituko den Kultur Etxea izango dugu. Orain arte era guztietako kultur eta aisialdi taldeak bildu izan gara Udarregi Zaharrean, hala nola, Guraso Eskola, Bertso Eskola, Pintura Eskola, Euskal txokoak... Hemendik aurrera, berriaz, guztiok orain arteko txokoa utzi eta lokal berrietara joango gara. Guri, Etumeta euskaltegikooi, Zumarte musika eskolaren eraikuntzaren ondoan eraiki dituzten etxe

berrien beheko solairura joatea egokitu zaigu eta hor ari dira langileak "jo eta fuego" lanak bukatu ezinik! Hemendik aurrera itute gutxiago izango al dugu!

Bestalde, tarte hau gure buruaren propaganda pixka bat egiteko aprobetxatuz, esan euskalduntza, alfabetatze, EGA eta transmisio taldeen matrikula epea zabalik dagoela irailaren bukaera arte. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 943 372001 telefonora. Matrikultzeko ordutegia: 10.00-13.00 eta 17.00-19.00 Udarregi Zaharreko egoitzan.



## Nafarroa Oinez en aldeko kanpaina



**U**rriaren 21ean Lodosan izango den Nafarroa Oinez-en aldeko kanpainari amaiera emateko bazkari ireki bat egingo da irailaren 23an Aitzaga elkartearen. Azken hilabeteetan hainbat material salgai eduki ondoren 450.000 pezeta bildu badira ere, 600.000 pezetara lortu nahi dituztenez, Aitzaga tabernan dago material hau eskuratu ahal izateko zerrenda. Bestalde, Nafarroa Oinez-en lan egiteko lan talde bat osatu nahi dute. Beraz, horretarako prest daudenak Aitzaga tabernan eman dezakete izena.

## LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA  
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA  
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48  
Mobila: 609 888021



**Kima**  
MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- beheka  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



## Beraien aurkako sumarioak ideia eta iritziak kriminalizatzen dituela dio Olatz Altunak

**J**oan den abuztuaren 29an pasa ziren Garzon epailearen aurretik desobedientzia zibila bultzatzeaz akusatzen dituen Joxemi Zumalabe Fundazioko, Auto-determinazioaren Biltzarrak eta Bai Euskal Herriari ekimeneko hamar lagunak. Guztiek epailearen akusazioak ukatu zituzten, eta inolako talde armatuarekin zerikusirik ez dutela adierazi zuten.

Olatz Altuna eta bere kideen esanetan "sumarioan erantsi dezaketen guztiak hutsaren hurrengo balio du, Garzonen tesia mugiezina delako".

Sumarioaren jatorria politiko-poliziala dela azaldu zuten, eta Garzonek judizializatu duela, helburu jakin batekin, "ezker abertzale osoa kriminalizatzea. Sumario honek ideiak eta iritziak kriminalizatzen ditu, Euskal Herriaren kontra jotzen du, eta hori da bere xede nagusia".

Horrez gain, guzti honek gizarte berri baten alde ari den oro helburutzat duela adierazi zuten eta sumario honen bidez oinarritzko eskubi-deak salatzen direla ere salatu zuten. Azkenik, Garzonek bere helburuen gauzapenerako

hedabideen aldetik jasotzen duen laguntza azpimarratu zuten: "Kolaborazio estua erakusten dute muntaia honi babesa emanaz".



**P**edro Mari Matxain da Baba Beltz Txikiaren kofradiako kofrade berria. laz mugak gainditut eta Sakanako Iriberriko Javier Zubiria izendatu zuten laugarren kofradea, baina aurten Kalezartar bati egokitu zaio ohore hori. Urtero bezala abuztuko azken ostegunean izan zen Baba Beltz Txikiaren kofradiakoen bazkaria. Andatzpe elkartean bildu eta nahikoa jan eta edateko aukera izan zuten hara bertaratu ziren 40 lagun inguruk.



**A**urten izan diren beste odol emanaldien antzera herritar ugari gerturatu zen anbulatoriora pasa den irailaren 10ean. Guztira 56 herritarrek eman zuten odola urteko bosgarren odol emanaldian eta haueetatik bi inoiz odola eman gabeak ziren. Pixkanaka-pixkanaka jende berria odola ematera animatzen ari dela adierazi digute Odol Emaleen Elkartetik, beraz ea urriaren 29an izango den urteko azken odol emanaldira jende gehiago gerturatzen den.

TABERNA-JATETXEA



**ANTAXETA**

EGUZKITZA, 4  
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44



**kafe berezia**

San Esteban kalea, 8  
TLF 36 27 70

20170  
USURBIL

## Vueltan iaz lortutako hamargarren postua hobetu nahian

**H**aimar Zubeldia Espainiako Vueltan da aurreten ere. Frantziako tourean nahi baino okerrago ibili ondoren iazko 10. postua hobetzen saiatuko da Urdaigako mutila. Hala ere, helburu hori lortzea erraza ez dela izango argi du Haimarrek, *"postu horietan sailkatu nahi duten txirrindulari asko baitaude"*.

Bere esanetan oso nekatuta bukatu zuen Tourra, atsedean hartzeko beharrek. Orduz geroztik Burgosko itzulia bakarrik korritu du, baina Vuelta ahalik eta ongien prestatzeko bi prestaketa saio egin zituen altueran. Font-Romeun (Frantzia) aurrena, eta Navacerradan azken egunetan.

Vuelta hasi aurreko egunetan mendian gora ahalik eta errenta txikiena galdu, eta erlojupekoetan igotzaileak ahalik eta gehien atzeratzea zen bere asmoa, baina irailaren 8ko 13 kilometroko aitzin-etapan ez zen nahi bezain ondo ibili. 42. postuan sailkatu zen, irabazlearengandik 58 segundora.

Tourraren atarian asko hitz egin zen bere lanaz, lor zezakeen emaitzaz, eta gero, partal aritu zen. Horregatik Haimarrek lasai, presiorik gabe aritu nahi du Vueltan eta iaz sailkapen nagusian lortutako 10. postua hobetzea du helbu-



rutzat. *"24 urte ditut, gaztea naiz, eta ez dut uste garaipenak, lorpen garrantzitsuak lortu behar ditudanik momentuz. Nahikoa dut nik neuk neure buruari jartzen diodan presioarekin, besteena, kanpoko aintzat hartu gabe. Galdetu gabe badakit aurtengo denboraldia ez dela txukunegia izan, eta Vueltan, ahalik eta lan onena egiten saiatuko naiz"*.

### Egunez eguneko bilakaera ikusi behar

Hala ere sailkapen nagusiko lehen hamarretan lan erraza ez dela izango garbi du Haimarrek. *"Egunez eguneko bilakaera ikusi behar da. Ez da erraza izango, partaidetza bikaina delako, eta txirrindulari asko daudelako lehen hama-*

*rren artean sailkatzeko helburua izango dutenak"*. Vueltakek gakoak bosgarren eta hamabigarren etapen artean dagoe la uste du berak. *"Lagos de Covadonga, Demanda, Andorrako etapa, Torrelavegako erlojupekoa eta Arcaliseko kronoigoera korrituko dira tarte horretan. Etapa bakoitzak ondorio garrantzitsuak izango ditu. Saio bakarria aintzat hartu gabe, aste oso horretako jarduna da gakoe-tako bat. 12. etaparen ostean sailkapen nahgusia nahiko zehaztuta geratuko da, eta Madrilera iritsi bitartean, txirrindulariak ordura arte lortutakoa mantentzen saiatuko dira, aldaketa gutxi egongo dira. Aitana eta Abantoseko gainetan, eta Madrilgo erlojupekoan ezer gutxi erabakiko da"*.


Josu Aranberri



**Usurbil Autoak, S. C. L.**  
Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa  
Aitzearra kalea, 1  
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79  
Faxa: 943 36 62 92



Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26

## Esteban Iribar omendu zuen herriko eskubaloit taldeak



**H**ainbat urtetan herriko eskubaloien nondik norakoak eraman dituen gizonak omenaldi beroa jaso zuen pasa den abuztuaren 31n Oiarde kiroldegian. Usurbil Kirol Elkarteak ibili izan diren emakumezko eskubaloit jokalarien arteko partidak eman zion hasiera omenaldiari. Ondoren, Esteban Iribarrek Usurbilgo herriak, eskubaloit taldeak, Gipuzkoa eta Euska-

diko eskubaloit federazioek eta Usurbil K. E.ko entrenatzaile izandako Benito Mujikak emandako hainbat oroigarri jaso zituen. Jokalari ohiek aureskua dantzatu eta Kerman Errekondok bertso bat abestu ondoren omenaldiko partida nagusia jokatu zen. Bertan, Kanariar irletako Galdar taldeak 24-23 emaitzaz irabazi zion Irungo Bidasoa taldeari.

## Dagoeneko martxan da Endika Abril errebote txapelketa



**P**asa den abuztuaren 26an hasi zen Endika Abril errebote txapelketa. Zubieta, Behar Zana 1 eta 2, Kapito Harri, Luzean, Baiona, Donapaleu, Hardoi-tarrak, Noizbait eta Senpere taldeak nor edo nor arituko dira datozen bi hilabeteetan Zubietako eta Billabonako plazetan. Izan ere, eguraldiak laguntzen

badu urriaren 7an jokatu da txapelketako azken partida Zubietako plazan. Zubieta Kirol Elkarteak talde bakarra izango du aurtien, Imanol, Joseba eta Mikel Aizpurua, Gaizka Iparragire eta Endika Garziak osatutakoa hain zuzen ere. Lehen partidatik 13-2 irabazi zuten Behar Zana 2 taldearen aurka.

## ► Joxemiel Peñagarikano

Beizaman jaio eta Usurbilen bizi den aizkolariak Donostiako Urrezko Kopa bigarren bez irabazi zuen pasa den abuztuaren 15ean. Iazko txapelketa erakustaldi bikaina egin zuen. Norgehiagoka osoan orain zu aurretik eta gero ni ibili ziren Peñagarikano, Olasagasti eta Larretxea baina hamargarren egurretik aurrera usurbildarra izan zen nagusi. Garaipena eskuetan zuela ikusita, marka ontzen aha- legindu zen, baina azkenean 17 segundotatik ez zuen probako marka ondu. Hamalau kanaerdiko 27 minutu eta 34 segundotan ebaki zituen.

Peñagarikano gustora zegoen probaren amaieran: "Gustura jardun dut, eta gorputza erritmoari eusteko moduan ikusten nuen. Bigarren enborra eutsia suertatu zait, eta kosta zait aurrera egitea. Gero, ordea, ez nuen Olasagasti atzean uzten eta Larretxearen erreferentziarik ere ez nuen. Azken egurrean marka ontzera joan naiz, baina adarra atera zait, eta adio markari

## ► Juan Mari Ugarte

Hauxe da herriko segalari berria. Duela urte batzuk Joxe Jabier Urdangarin izan zen segalari txapelketetan parte hartzera animatu zena, baina aurtien Juan Mari Ugartek hartu du bere lekukoa. Euskal Herriko txapelketen finalerdietarako txartela lortu ondoren finalerako atarian gelditu bazen ere, abuztuaren 15ean Andazarraten Andoni Rezabal aiararren aurka jokatu da desafioan ez zuen kale egin. usurbildarrak 3.053 kilo ebaki zituen ordubetea eta aiarak, berriz, 2.897 kilo. Ugartek eskuratu zituen, beraz, bakoitzak jarritako 400.000 pezetak.



# Usurbilen euskaraz erosteak eztu prezioik!

**U**surbilgo merkataritza Euskararen Plangintzaren 2.fasea gauzatzeko hautaketa uztailaren 24ean burututako gobernu batzordean egin zen. Bi izan ziren aurkeztutako proposamenak: EMUN kooperatibak burututakoa eta Noaia! Kultur Elkarateak eta AEKak elkarlanean gauzatutakoa. Bi proposamenak aztertuta gobernu batzordeak herriko bi elkar-teei eman die egitasmo hau gauzatzeko aukera.

1997an herriko establezimendu guztiak aztergai zituen ikerketa soziolinguistikoko bat burutu zen herriko merkatarien artean. Azterketa honen emaitzek euskararen presentzia areagotzeko premia erakutsi zuten orduan, merkatarien ezagutza eta erabilera mailan eta ageriko elementu idatzietan (errotuloak, ordutegiak, menuak,...). Horrenbestez, 1998an "Zenbat da? Euskarak eztu prezioik!" mezuarekin merkataritza euskalduntzeko egitasmoa hasi zuen udalak.

Kanpainak harrera eta ebo-luzio positiboa izan zuen. Merkataritza euskalduntzeko asmoz proposatu ziren ekimenek erantzun ona jaso zuten, eta horren seinale izan zen ikastarotan izena eman zuten merkataritza guztien kopurua, eta euskaratutako inprimaki eta errotulo kopurua, besteak beste.



Kanpaina hura amaitu zen eta esan bezala beraz, fruitu onak utzi zituen euskararen normalizazio bidean. Eta oraingo honek ere emaitza onak uztea da helburua.

## Herriko bi elkarte asmo berdinarekin lanean

Hurrengo hilabeteetan Noaia! Kultur Elkaratea eta AEK euskaltegia herriko merkataritza euskalduntzeko egitasmo hau gauzatzeaz arduratuko dira. Aurrekoaren jarraipena izango da, hau da, interbentzioaren 2. fasea. Kasu honetan, ordea, kanpainaren lelo nagusia "**Eros ezazu euskaraz**" izango da.

Azken finean, merkataritza euskalduntze bidean merkataria eta herritarrok hartu behar ditugu konpromisoak. Establezimendu, taberna, jatetxe eta komertzio hauetan herritarrok

euskararen erabilera bultzatzearen ardura dugu. Herritarrok gara eskatzaileak eta, noski, euskaraz erosi behar dugu.

Oraingo honetan ere kanpainaren tresna nagusia udalaren eta herriko establezimenduen artean landuko diren hitzarmenak dira. Hauen bidez denda, taberna eta jatetxe bakoitzak bere establezimenduan euskararen presentzia areagotzeko konpromezua hartuko du eta udalak horretarako beharrezko bitartekoak eskeinitu ditu.


Kanpaina honen aurkezpena irailaren 17an egingo da udaleko pleno aretoan. Aurkezpen bilera honetara azaltzeko komertzianta guztiei gonbidapena luzatuko zaie eta, era berean, aurreko kanpainaz duten iritzia ere jasoko da.

**Agurtzane Solaberrieta**

*Xinkildegia*

Lentzeria,  
gizonezkoentzat arropa,  
haurren jantziak,  
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behean,  
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87



**Urteinea**

*Loreak - Lore landareak*

*Lore sortak - Koroak*

San Esteban  
Tlf.: 943 36 22 55

**P A T R I**

J A T E T X E A  
Eguneko bazkariak  
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

## Nere Eruntzetamurgil “Eros ezazu euskaraz” kanpainaren arduraduna izango da



**U**dalak martxan jarri duen herriko merkataritza euskalduntzeko egitasmoaren 2.fasea Noaua! Kultur Elkartek eta AEKak Etumeta euskaltegiak egingo dute. Bi elkarte hauek **Nerea Erauntzetamurgil** herritarrari eman diote lan hau egiteko aukera eta irailaren 3az geroztik Noaua!ko egoitzan dabil lanean. Beraz, kanpainaren inguruan informazioaren bat argitu nahi baduzu edo berarekin hitz egin nahi izanez gero deitu gure telefonora edo etorri gure lokalera.

**A**buztuaren hasieran kontu korronte bidez bazkidetza kobratu genuen. Hala ere, batzuk ordainketa eskuz egiten duzue edota gure kontu korrontean sartzen duzue dirua. Aspaldi izan zenuten bazkidetza kobraketa berri, inor ez baikenuen ezustean harrapatu nahi. Hilabete inguru pasa da honen berri eman genuenetik, baina hala ere, batzuk despistatu xamar zabiltzate eta oraindik ez duzue bazkidetza ordaindu. Beraz, iraila bukaera baino lehen ordaintzen ez dezutenok izango duzue gure berri.

**O**raindik ez dituzula 2000ko Noaua! hamaboskariaren ale guztiak (81-103) koadernatu? Ba, oraindik garaiz zabiltza! Izan ere, Noaua! Kultur Elkartek beste bi hilabete utzi baititu. Aleren bat, aurkibidea edo azala falta bazaizue ez izan gure egoitzan eskatzeko inongo lotsarik eta Laurok edo Lizardi liburudendan koadernatuko dizute.

## Etxez etxeko bazkidetza kanpainak aurrera darrai

**M**omentu honetan 525 bazkidek osatzen dugu gure familia hau, eta familia haunditzeko gogoz gabiltza, ze arraiio! Lan honetan, hementxe argazkian ikusten duzuen pertsona dabil: **Aitziber Aranberri**. Bera da bazkideztaz arduratzen den kidea. Beraz, badakizue, berehala gara zurean eta ireki zuen etxeko atea Noaua! Kultur Elkarteari eta egin zaitez bazkide. Zure laguntza ezinbestekoa dugu hamabostero-hamabostero Noaua! aldizkaria hutsik egin gabe zure etxean izateko eta gure kultur elkartea indartzeko. Etxez etxeko bazkidetza martxan jarri dugu jada, beraz, aspaldi bazabiltza bazkide egin nahian, edo bazkide egin nahi duen norbait ezagutzen baduzu, lasai egon, laster gerturatuko baikara zurera!





# Aurten ere Ibai Ondo elkarteak antolatu ditu Santueneako jaiak

**D**uela hiru urte hartutako bidea ez dute utzi nahi Ibai-Ondo elkarte-ek. Beraiek dira Santueneako jaiak bizirik mantentzen dituztenak. 1999. urtean jai batzordea desagertu zen eta elkarte honek korrika eta presaka egun bateko jaia antolatu behar izan zuen. Iaz bi eguneko festa izan eta aurten ere ildo beretik jarraitu dute: irailaren 22 eta 23an jai giroa nagusituko da Santuenean.

Hala ere jai hauek aurreko urteetakoekin alderatuz ezberdinak izango dira. Ez egitarauan aldaketak izan direlako bakarrik, ekitaldi gehienak Ibai-Ondo elkartearen aurrean izango direlako baizik. *"Areto futbol eta eskubaloit partidak eskubaloit plazan izango dira, baina gainontzeko ekitaldi gehienak gure elkartearen aurrean egitea erabaki dugu. Zergatik? Azken urteetan herriko jende gutxi etortzen da jai hauetara eta auzokoak dextente biltzen bagara ere giro polita sortzeko plaza nagusia haundiegi da".*

## Ektaldi gehienak Ibai Ondo elkartearen aurrean

Jendea gehiegi sakabana-tzen bada giroa hotza izaten dela uste dute antolatzaileek eta horregatik festa gunea Ibai Ondo aurrera pasatzea erabaki dute. *"Aldaketa hoberako bada datorren urtean ere gure elkartearen aurrean izango dira ekitaldi gehienak, baina ondo ez dela ateratzen ikusten badugu baliteke lehengora itzultzea".* Hala ere txaranga auzo guztian zehar ibiliko da eta igel jokoak, berriz, Gure Elkarte zaharren egoitzaren aurrean izango da.

Egitarauari dagokionez aurten lehen aldiz areto futbol txapelketa antolatu dute. 12-14 urte bitartekoek parte hartu ahal izango dute txapelketa honetan eta izena eman nahi duten taldeek herriko zenbait lekutan hor dituzte bete beharreko orriak. Larunbatean hasiko da txapelketa eta igandean jokatu da azken partida. Hori bai, eskubaloit partidarik ere ez da faltako. Garai batean eskubaloia nagusi zen Santuenean eta azken urteetan hainbat eskubaloit jokalarik zapaldutako plaza nahiko utzia badago ere aurten ere bertan eskubaloia partida ikusteko aukera izango da.

Jaietako bitxikeria modura iazko "sardina jana" aipatu zuten antolatzaileek. Duela hiru urte sardina dextente gelditu omen ziren jan gabe. Iaz, ordea, arraindegian sardinik ez eta antxoak ekarri zituzten, eta baita jendeak denak jan ere. Hala ere, aurten sardinak banatuko dira irailaren 22an. Eta ez da dohainik banatuko den jaki bakarra izango, hurengo egunean piper jana izango baita Ibai Ondo elkartearen aurrean.

### Irailak 22, larunbata

**10.00etan** umeen jolasak

**Ondoren** buruhaundiak

**11.00etan** toka Ibai-Ondo elkartearen aurrean

**12.00etan** Gorritiren showa

**16.00etan** areto futbol txapelketa

**Ondoren** igel jokoak zaharren elkartearen

**18.00etan** globo guda

**19.00etan** sardina jana Ibai Ondo elkartearen

**19.30etan** buruhaundiak

**23.00etan** diskoteka eta txaranga goizaldera arte

### Irailak 23, igandea

**11.00etan** areto futbol txapelketako finala

**Ondoren** eskubaloit partidua

**14.00etan** ahari jokoak

**14.30etan** auzo bazkaria

**18.00etan** piper jana txaranga gaz lagunduta

**18.30etan** txaranga







## Lehiaketa



### Zer dago faltan, zer soberan?

Asmatzaileen artean  
Tragoxka tabernan bi  
pertsonentzako afaria  
zozketatuko dugu



Egilea: Foto-Maria

#### Erantzuna

Irudi honetan  
ageritzen den  
amabirjina Kale-  
zarko ermitan  
dago eta Sokorro-  
ko amabirjina ize-  
nez ezagutzen da.

#### Irabazlea

**Maria Iturrioz**

#### Saria

Antxeta tabernan bi  
lagunentzat afaria

### RAMON BARCENILLA

- . Pikor- pintura eta  
gotele lanak
- . Papereztatze-lanak
- . Pintura-lanak oro har

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL  
MOBILA: 629 46 09 66

Kale Nagusia, 10 USURBIL  
Tlf. 943 37 33 48  
943 37 09 13

**LABE-GOXO**  
Ondareak - Restaurazioa

### WITZINGA HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater  
konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17

*Euskaral presioak etxera!*



### BORDATXO EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42



### TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



### ARRAINDEGIA PELLO

Arizeta Kalea, 1  
Tlf 36 21 64  
USURBIL

## IRAILAK 23 igandea

- **Nafarroa Oinezan aldeko bazkaria izango da Aitzaga elkartean. Txartelak Txiriboga eta Aitzaga tabernetan eros daitezke 2500 pezetaren truke.**

### OHARRAK

- ✎ Munalurran garaje bateko marra saltzen da. Deitu 943 362424 telefonora.
- ✎ Gitarra española bat dut salgai. Admira Juanita marka. Ehun bikotzekoa eta forraturiko forro beltzarekin. Ia erabili gabea, oso egokia onean dagoena. Prezioda: 16.000 pezeta. Telf. 678 375 390.
- ✎ Yamaha XJ 600 motoa daukat salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- ✎ Betaurreko batzuk galdu dira anbulategi inguruan funda gris batekin. Aurkitu dituenak udaltxera eraman ditzala.
- ✎ Urrezko belarritakoa galdu nuen hilaren 15ean Kalezarko plazan. Aurkitzen duenari ordainduko zaio. Telf. 943 360643
- ✎ Lonja bat, batez ere trastero bezala erabiltzeko, erosiko genuke. Kalezar auzoan egon behar du derrigorrez.
- ✎ Telefonoa: 943. 36.14.49. Ordutegia: 13.30etatik 14.30 etara eta 20.00etatik -20.30etara.
- ✎ Txori kaiola haundiak ematen ditugu modu onean. Telf. 943 364354

**Aterpe eskulangintza taldeak aurtien ere urrian irekiko du bere tailerra Etxealdian. Bertan tailaketa, marrazkia eta pintura, zaharberritzeak eta eskulak landu ahal izango dira. Izena eman nahi duenak 943-360744 telefonora deitu beharko du**

- ✎ Motozerra elektrikoa salgai. Sugegurra prestatzeko primerakoa. Telf: 943 364354
- ✎ Peugeot 106 ibilgailua salgai. Gasolina. M-8625-XX matrikuladuna, 27.000 km (2 urte), 850.000 pezeta. Interesatuak deitu 943 372607 telefonora arratsaldetan.
- ✎ Neska gazte bat behar dugu arratsaldez, ikastolatik atera ondoren, bi orduz bost urteko neskatoa zaintzeko. Telf. 943 360213 Yolanda edo Iñaki.
- ✎ Usurbilen pisu bat osatzeko jende bila nabil. Deitu 943 793147 edo 617788538 telefonoetara.
- ✎ Abuztuaren amaieran betaurreko graduatuak galdu nituen Urbil-Usurbil ibilbidean. Fundarik gabe, hori eta marroi antzekoak. Telf. 943 371495
- ✎ Giltza batzuk galdu ditut Eguzkitzaldea inguruan. Aurkitu dituenak 652718884 telefonora deitu dezake.
- ✎ Neoprenozko traje bat dut salgai. Rip Curl marka eta L taila. Prezio interesgarria. Telf. 653728059.
- ✎ Udarregi ikastolan eskola kiroleko monitoreak behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 telefonoetara.

## Usurbilgo pelota txapelketako azken partidak irailaren 21ean jokatuko dira

**U**ztailen hasi zen juvenil eta senior mailako Usurbilgo txapelketako finalak irailaren 21ean jokatuko dira gaueko 22.00etatik aurrera.

Jubenil mailan Zabala-Oteiza bikotea dagoeneko finalean da eta azken partida jokatuko duen beste bikotea datorren irailaren 15ean jokatu

den finalerditik aterako da. Bertan Baztango Arrastoz-Eskudero eta Hernaniko Alvarez-Yubero bikotea izango dira aurrez aurre.

Senior mailan, berriz, usurbildar batek jokatu du finala, Enrike Huizik eta Mintegi lizarrazarrak 22-9 irabazi baitzien Javi Sancho usurbildarra eta

Altunari. Beraien aurkariak Errasti anaiek eta Erroizenea-Argotek jokatu duten finalerditik aterako dira.

**Bigarren finalerdiak irailaren 15ean jokatuko dira gaueko 22.00etan hasita, finalak, berriz, irailaren 21ean gaueko 22.00etatik aurrera.**



# Aizpurua



Zure mahaia ondo horni-  
tu nahi baduzu gurean  
duzu aukera!

## Telesforo Ardoak



Kale Nagusia, 25  
Telf: 943 36 12 20

### GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8


GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA,  
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA  
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.  
KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2,4,6,8

GARAGE ITXIAK, KOMUNITATEN ADMINISTRATUAZ,  
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT, ALTURA BEREZIAK,  
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT, TAMAÑA ETA LUZERA  
DESBERDINAK, EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU  
PROPIOAREKIN, KOTXEAK GARBITZEKO LEKUAREKIN

SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAK  
SARRERAK: 500.000 pezetarik, HILEKOAK: 15.000 pzi.

**MENDIGAIN S.M. ERAGILE INMOBILIARIOA.** Tel. 943 31 48 21  
DEITU EZAZU KONPRIMISURIK GABE

#### GARAGEN DISTRIBUZIOA



Lehenengo solairua

Bigarrenengo solairua

## Ibai Ondo Elkarteak Sanesteban jaietako plater tiraketan lagundu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkie:

- x Arruti Ardoak
- x Tragoxka Taberna
- x Manterola Txitxardinak
- x Usurbil Autoak
- x Alamandegi Jatetxea
- x Zabala Anaiak
- x Manterola Gasolindegia
- x Berasategi Akeitak
- x Iruin Sagardotegia

- x Urdantzi Igeltseritza
- x Fribin
- x Aizpurua Autobusak
- x Saltxipi Jatetxea
- x Erroizpe Elkarte
- x Urtinea Lorategia
- x Ingemar
- x Telesforo Ardoak
- x Andazpe Elkarte

- x Egioleta Sagardotegia
- x Zumeta Jatetxea
- x Eizmendi Kirolak
- x Usurbilgo Udala
- x San Estebango Jai Batzordea
- x Illunbe Sagardotegia
- x Fagor Automation
- x Andres Bruño e Hijos


# ESKERRIK ASKO



*Herriko komentzioetan,*

**FROSKARAZ**  
ezazu

**Noana!!**  
KOLAKA LITAKA



**USURBIL**

